# Zarauzko historia ikusgai

## Ekainaren 24an zabaldu zituen ateak Arte eta Historia Museoak, bertan dauden hiru solairuetan herriko ondare garrantzitsuenak jasotzen dira


JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS
■■■ Lanak koordinatzeaz arduratu den Leopoldo Zugaza Zarauzko Arte eta Historia museoan.

Zarautzen Arte eta Historia Museoa ireki denetik zarauztarrek ez dugu aitzakirik gure herriko historia ez ezagutzeko. Ekainaren 24an inauguratu zen museoan denetatik ikusteko aukera dugu. Museoaren helburua Zarauzko historia lantzea eta ezagutaraztea da, baina ez Zarauzkoa bakarrik, baita inguruko herritako historia ere.

Museoa hiru solairutan banatzen da. Beheko solairuan, eta bisitariaren hanka azpitik nekropolis bat ikus daiteke. Nekropolisa eraikuntzaren sotoan aurkitzen da eta benetan ikusgarria da hurbiltzen diren guztientzat. Nekropolisak erakusten duena da, Zarautz X. mendetik aurrera kristau nukleo bat izan zela. Aranzadi taldekoek 29 gorputz identifikatu ahal izan ditu, eta baita beste bost gorputzen zatiak ere.

### Kartografia zabala

Beheko solairuan ere kartografia nahiko konpletu bat aurkitzen dugu bai Zarautz eta baita inguruko beste herri batzuetakoa ere.

Azkenik Zarauzko historiako gertaera desberdinen elementuak ikus daitezke, esaterako XIV. mendeko Santiago Bideko gurutze bat.

Bigarren pisuan, Zarauzko kulturaren inguruko hainbat elementu aurkitzen ditugu, eta hirugarren pisuan 1911ko kanpai dorreko mekanismoa ikusgai izango du bisitariak eta bestalde, pisu berean Zarauzko hainbat artisten lanak ere aurkitu daitezke.

Museoa kokaturik dagoen Parrokiko dorreak dituen espazio arazoak direla-eta, ez du tokirik Zarauzko historia eta arte guztiak. Horregatik, informazioa sintetizaturik aurkitzen da baina informazioa hori zabaldu egingo da, denboraldi bateko erakusketekin, bai Torre Luzean, bai Sanz Enean.

Aurreko Zarautz

### Historia handiko herria

Herri bezala Zarautz 1237an sortu zen, baina Parrokian aurkitu diren aztarnek mila urte lehenago kokalekua zegoela erakusten dute. Beraz, historia handiko herria da. Nahiz eta zehatz mehatz ez jakin noiz sortu zen.

Bestalde, aztarnategi hau erabat garrantzitsua izan da Gipuzkoan erromatar garaia nolakoa izan zen ikusteko. Bi mila erromatar arrasto baino gehiago jaso dituzte Aranzadi taldeko langileek Parrokian. Arrasto hauek Zarautz I eta IV mende artean nukleo komerzial erromatar bat izan zela erakusten dute.

Arrasto hauen artean bereziki buztin materialaz eginiko piezak izan dira, baina aurkitu dira ere zenbait txanpon.

Beraz, bertara hurbiltzen denak aukera izango du Zarautzeko historia gertutik ezagutzeko. Bertara hurbiltzen diren gehienak Zarauztarrak izango diren arren, asko izango dira ziurrenik bertara hurbilduko diren Euskal Herriko eta atzerrik biztanleak.

Salbatore Mitxelena Ikastola
34 urte EUSKARA eta EUSKAL KULRURAREN ALDE lanean.
Zorionak Egunkaria!
Salbatore Mitxelena Ikastola
PARTAIDE
Tel.: 943 83 17 52 • Faxa: 943 83 36 90
Maria Etxe-txiki, 14 • ZARAUTZ • e-mail: zarautz@ikastola.net

Herriko Barra, 8 behea
20800 ZARAUTZ • Tel./Faxa 943 13 00 97

Bisita-Txartelak
Ezkontza-gonbidapenak
Folletoak
Propaganda-orriak
Kartelak
Talonarioak
Katalogoak...
HIZKI
inprimategia

urquia
Prentsa-salmenta
Eskelak eta publizitatea
Bitxitegia-opariak
Kirol- trofeoak
Kale Nagusia, 26
943 83 30 63 / 943 83 22 57
Faxa: 943 83 25 72 - 20800 ZARAUTZ

ZARAUZKO UDAL EUSKALTEGIA
San Ignazio, 11
Tel.-Faxa: 943 13 11 53
euskaltegi.zar@zarautz.org
ZATOZ!!
ATEAK ZABALIK DITUZU

Bar Isabel
1.959an sortua
• Eguneko menua
• Kaxuelitak
• Ogitartekoak
Bizkaia kalea, 24
20800 ZARAUTZ - Tel.: 943 83 22 64

MONDRA
Kafe-etxea
Goizeko 6:30etatik irekita
Mitxelena kalea, 27 - 943 83 45 61
ZARAUTZ

Mondra
Opil Okindegia
Mitxelena kalea, 27 - 943 13 45 29
ZARAUTZ

ZELINA
URDAITEGIA
Azoka plaza, 17-18
Tf.: 943130842
20800 ZARAUTZ

EIZAGIRRE tapizeria
Tapizatuak, koltxoiak eta apainketarako osagarriak ditugu
Zelai Ondo, 1 ZARAUTZ Tel.: 943 83 39 69

URDANGARIN
ITURGINTZA
K21
ITURGINTZA ORO HAR
BEROKUNTZA SISTEMA ETA GASA
ERA GUZTIETAKO BAINU ALTZARIAK
BAINUKO OSAGARRIAK
Herrikobarra, 21 20800 Zarautz Tel: 943 131 570